



ALKATETZAREN DEKRETUA

Zaldibiako Sarrera Erregistroan A/20-00565 zenbakidun eskaera sartu da 2020ko irailaren 25ean.

Honakoa dio:

Zaldibiko Alkate udalburuari, zera adierazten diot:

Urriaren 16an, kontzertu batzuk (19:00etatik 24:00etara) antolatzeko asmoa dugunez, plazako frontoia erabili nahiko genuke. Eguraldi txarra izan ez gero frontoi itxia beharko genuke.

Urriaren 16rako beharko genuke:

Aulkiak, mahaiak (4), ur-toma, argindarra, hesiak ingurua ixteko haina, zinta gorria, garbiketarako materiala eta soinu ekipo handia.

Hau dela eta eskatzen dut:

Eskatutakoa gure esku jartzea.”

Hau hala izanda, Udalak 2020ko irailaren 29an arratsaldeko 18:15ean bilerarako dei egin zion eskatzaileari eskaerari buruzko hainbat gai zehazteko baimena eman aurretik:

1. Ekitaldiaren arduraduna: ardura pertsonala den edo kolektiboa galdetu zaio eskatzaileari eta adierazi du Zaldibiako Gazte Asanblada dela antolatzaileria. Udalak iaztik irekia dion espedientea tarteko, konpromiso sinatua aurkeztu arte eragile honen eskaerak ez direla aintzat hartuko adierazi zaio eta 2020ko urriaren 5ean, idatzia aurkeztu dute udalean honako konpromisoa adieraziz:

“Zaldibiako Gazte Asanbladak, bere konpromisoa hartzen duela Udalari egingo dizkiogun eskaeretan Udalarekin adostu eta hark emandako baimenean ezarritako baldintzak bete eta betearazteko”.

2. Adierazpen hori jasota espedientearen itxiera dekretua sinatu du alkateak, hemendik aurrera eta ZGAK adierazitako konpromisoa betetzen bada eragile honen eskaerak aintzat hartuko direlarik.
3. Urriaren 16rako eginiko eskaera aintzat hartuta eta bi aldeen artean izandako bileraren ondoren:



Zaldibiako Udala

2020IOLA0014

Erabaki dut,

LEHENA. Zaldibiako Gazte Asanbladari eskatutako baimena ematea, urriaren 16an kontzertuak antolatzeko 19:00etatik 00:00etara eguraldi ona bada belar artifizialeko zelaian (futbitoan) eta txarra bada Resti pilotalekuan.

BIGARRENA. Covid-19 gaitza dela eta, ekitaldirako jarraian zehazten diren neurriak ezartzea:


ANTOLATZAILEARI DAGOKIONEZ:

- Zaldibiako Udalak 2020ko irailaren 15ean eguneratu eta onartutako KULTUR, KIROL ETA AISIA EKITALDIAK EGITEKO JARRAIBIDEAK bete beharko ditu antolatzaileak.
- LEKUAREN prestaketa:
 - Belar artifizialeko zelaian bada:
 - AFOROA: 133 lagun, jarraian zehazten den planoaren arabera kokatuak, eserita, banaka eta 1,5 metroko distantzian gutxienez.





SARRERA / IRTEERA



- **INGURUAREN HESITZEA:** eliza atzeko pasabidea itxiko da Toki-alai frontoiaren parean eta eskola aurrean, argazkian ageri den puntuetan. Eremu horretara ekitaldirako sarrera dutenak eta antolakuntzako kideak zein musikariak sartuko dira soilik.


Hesiak udalak jarri eta kenduko ditu, baina antolatzaileek bermatu beharko dute ekitaldiak iraun bitartean hesiz barru beste inor ez dela pasatzen.





- **SARRERA-IRTEERAK:** zelaiak ate bakarra du, beraz bertatik egingo dira biak eta eskola aldera sartu eta atera beharko da. Iilaran gutxieneko distantzia fisikoa mantentzea bermatuko da. Ilara argazkian ikusten den eran, eskolako aparkalekuen aldera luzatuko da.
 - **DESINFEKZIOA:** Udalak eremuaren aurre-desinfekzioa egingo du, baita ondorengo ere. Aulkiak kokatzean desinfektatu egingo ditu antolakuntzak eta ekitaldia amaitzean ere berdin jaso aurretik.
- Resti pilotalekuan bada:
- **AFOROA:** 158 lagun, jarraian zehazten den planoaren arabera kokatuak, eserita, banaka eta 1,5 metroko distantzian gutxienez.





- **INGURUAREN HESITZEA:** Kasu honetan ez da beharrezkoa izango. Frontoi barrura ekitaldirako sarrera dutenak eta antolakuntzako kideak zein musikariak sartuko dira soilik.
- **SARRERA-IRTEERAK:** bi ate daudenez sarrera haureskola aldeko atetik egingo da eta irteera futbito aldetik. Sartzerakoan ilaran gutxieneko distantzia fisikoa mantentzea bermatuko da. Ezinduen kasuan aldapatik egingo dira bai sarrera eta bai irteera.
- **DESINFEKZIOA:** Udalak eremuaren aurre-desinfekzioa egingo du, baita ondorengoa ere. Aulkiak kokatzean desinfektatu egingo ditu antolakuntzak eta ekitaldia amaitzean ere berdin jaso aurretik.

*Kontzertu eguna baina 2 egun lehenagorako, urriaren 14a baino lehen, zehaztu beharko dio antolakuntzak Udalari belar artifizialeko zelaietan edo Resti pilotalekuan izango den kontzertua. Bitartean Zaldibiako udalak bi lekuak (irekia eta itxia) erreserbatuko ditu.

- **ORDUTEGIA:**

15:00etan prestaketa lanak hasiko dira. Ordurako Zaldibiako Udalak antolatzaileek eskatutako baliabideak eskura jarriko dizkio.

18:30ean ikusleei sarrera ematen hasiko da antolakuntza.

19:00etan lehen kontzertua hasiko da.

20:30etik 21:30era atsedena egingo da, irteera eta sarrera modu ordenatuan egingez.

21:30ean bigarren kontzertua hasiko da.

23:00etan hirugarren kontzertua hasiko da.

00:00etan amaituko da ekitaldia eta ikusleak atera egingo dira eremutik



01:00etarako guztia jaso eta eremua itxiko da. Eremuan utziko den bakarra oholtza izango da, hurrengo eguneko goizean desmontatuko delarik*

*Udalaren oholtza erabili behar bada eta Resti Pilotalekuan, montatuta utzi ahal izango da igandean beste emanaldi bat dagoelako.

Beltz ilunez dauden orduak derrigorrez errespetatu beharrekoak dira, besteak antolatzaileek Udalari azaldutako orientazio bat.

- **SARRERA SALMENTA:** sarrerak aurrez salduko dira behar baino jende gehiago ez bertaratzeko. Ez da gaindituko eremuari dagokion aforoa eta eremura ez da sartuko sarrerarik ez duen inor, musikari eta antolatzaileak izan ezik. Ekitaldi luzea denez tartean atsedenaldiarekin, ikusleak aulki berean esertzen direla ziurtatzeko aulkiak zenbakitu egingo ditu antolakuntzak.

- **EKITALDIRAKO JARRAIBIDE OROKORRAK:**

HERRITARREN SARRERA ETA IRTEERAK

- *Musukoa jantzita egingo dira sarrera irteerak eta gogoraziko da ilaran elkarren arteko 1,5 metroko tarte errespetatzeko. Etxekideen kasuan elkarren ondoan egon daitezke ilaran.*
- *Eremura sartzeko aurrez eskuratutako sarrera erakutsiko da eta gel hidroalkoholikoz igurtziko dira eskuak. Komenigarria izango da antolakuntzako bi kideren lana (gutxienez) horretarako.*
- *Bertaratuei ordena egokian esertzeko/kokatzeko jarraibideak emanaz lagunduko zaie. Etxekideak direnen kasuan, ondoz ondo eseri daitezke.*
- *Irteeran, pixkanaka eta ordena egokia jarraituz aterako dira bertaratuak, elkarren arteko distantziak errespetatuz.*
- *Hainbat sarrera eta irteera izango dituenek ekitaldiak, antolakuntzak hauek modu egokian egiteko neurriak hartuko ditu eta eskatuko da mugimenduak ahalik eta gehien murrizteko.*

EKITALDIAN ZEHAR KONTUAN IZAN BEHARREKOAK

- *Ikus-entzuleak eserita egon beharko dira uneoro eta musukoarekin.*
- *Edozer dela eta ekitalditik atera behar badu norbaitek, antolatzaileek adi egon beharko dute ezer dela ere laguntzeko. Berrito sartu nahi badu, eskuak gelez igurtziaziko zaizkio eta bere lekura bideratuko da.*
- *Ekitaldia hasi aurretik, gogorazpen oharrak emango dira mikrofonotik higiene eta segurtasun jarraibideak emanaz.*

Adibidea: "Ongi-etorri gaurko ekitaldira. Hasteko ohar batzuk: gogoratu segurtasun distantziak bermatzeko zuen lekuan mantentzea, gainontzekoekiko distantzia betetzea, baita musukoa jantzita izatea ere. Inork atera behar badu, eskatu laguntza antolatzaileei. Ondoren sartzeko



Zaldibiako Udala

2020IOLA0014

eskuak gelez igurtzi berriz. Ekitaldia amaitzean lekuan itxaron. Distantziak errespetatuz ordenan aterako gara, antolatzaileek emandako jarraibideei kasu eginez eta aulkiak dauden lekuan bertan utziz. Gozatu dezagula ekitaldiaz!"

EKITALDIA AMAITU ONDORENGO LANAK

- *Antolatzaileak mikrofonotik esango du irteeraren kokapenaren arabera nola aterako garen. Irteera aurrealdetik badago, lehenik aurreko ilaretakoak aterako dira eta atzean badago atzekoak. Ilara batekoak atera arte ez dira ateratzen hasiko hurrengo ilarakoak.*
- *Ekitaldia aulkietan izan den kasuan, aulkiak bertan uzteko eskatuko zaie bertaratuei eta eremua husten denean, antolatzaileek bilduko dituzte aurrez eta ondoren eskuak garbituta eta aulkiak desinfektatuta.*
- *Udalak, batez ere pertsona asko bildu den ekitaldien ondoren eta espazio itxietakoen kasuan, motxiladun sprayaz desinfektatu egingo du eremua, bai herritarrek erabilitako eremua, baita ekitaldia burutu dutenek erabilitakoa ere.*

EKITALDIA BURUTUKO DUTENEI DAGOZKIEN IRIZPIDEAK:

- *Antolatzen diren ekitaldiaren ezaugarriak ikusleen arteko distantzia bermatzera bideratuta egongo dira, ahal den heinean, eta ezin denean dagozkion babes-neurriak ezarriko dira.*
- *Ikusleekin hartuko diren segurtasun neurrien berri emango zaie aurrez eta beraien berri emango diote antolakuntzari eta Udalari.*
- *Soinu-ekipoa eta mikrofonoak erabili behar badira desinfektatu egingo dira aurrez eta ondoren. Mikroaren kasuan, baita eskuz esku pasa behar denean ere.*
- *Muntaketa eta desmuntaketa lanetan bi lagun edo gehiagok distantziak bete gabe egin behar dituzten lanetan maskara jantzita izatea bermatuko da eta eskuak garbitzeko materiala izango dute eskura.*
- *Artista-taldeen eta kirolariei dagokienez, ikuskizunak irauten duen bitartean baimenduta egongo da beraien arteko interakzioa eta maskara kentzea.*
- *Ekitaldia hasita egonik ere, segurtasun distantziak bermatzeko modua jarri, baina ez dela betetzen ikusiz gero antolatzaileek distantzia hauek bermatzeko abisua jakinarazi beharko die distantzia mantentzen ez dutenei. Hala behar izango balitz ekitaldia momentu batez eten egingo litzateke arazoa konpontzeko neurriak hartzeko. Eta beste erremediorik ez balego ekitaldia bertan behera utziko litzateke.*

- JATEA, EDATEA ETA ERRETZEA

- *Ekitaldia izango den eremuan ezin izango da ez jan, ez edan eta ez erre.*
- *Era berean, gogorarazten da Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailaren 2020ko abuztuaren 19ko aginduz indarrean daudela neurri hauek eta beraz, ekitaldi eremutik kanpoko espazio publikoetan (eskola aurrea, aparkalekua,*



parkeak...) ere debekatuta daudela ekintza hauek. Edari salmentarik ezingo da egin, beraz.

3.30.– Osasungaiztasun-egoerak. Ostalaritzako establezimenduak edo antzekoak ez diren espazio publikoetan edo kalean taldean edatea osasungaiztasun-egoeratzat hartuko da, Jendaurreko ikuskizunen eta jolas-jardueren abenduaren 23ko 10/2015 Legearen 6.f) artikuluan aurreikusitakoaren ondorioetarako,

2.4.– Ezin izango da erre bide publikoan edo aire zabaleko espazioetan, ezin bazaio pertsonen arteko 2 metroko gutxieneko distantziari eutsi. Tabakoa arnasteko beste edozein dispositiboren erabilerari ere aplikatuko zaio muga hori, hala nola zigarreta elektronikoei, lurrungailuei, ur-pipei, pipei edo antzekoei.

- UDAL BALIABIDEAK:

Urriaren 16ko eskaeran eta ondoren izandako bileran, honako baliabideak eskatu dira eta Udalak antolatzaileen esku jarriko ditu prestaketa lanak hasteko ordua baino lehen:

- **AULKIAK:**
 - Belar zelaian 110 aulki + 23 kono txiki gradetako eserlekuak markatzeko + antolakuntzarentzat 20
 - Restin 117 + 25 kono txiki gradetako eserlekuak markatzeko) + 16 barandarako + antolakuntzarentzat 20.
- **MAHAIK:** 4 mahai.
- **UR-TOMA:** garbiketarako eskatu dute, baina desinfekzioa udalak egingo duenez ez da behar. Eskuak garbitzeko iturria bertan dago.
- **ARGINDARRA:** soinu ekipoarentzat argia frontoitik eramango du Udalak dagokion lekura.
- **HESIAK:** udalak hesituko ditu atzeko pasabidea eta eskola aurrea.
- **ZINTA GORRIA:** antolatzaileen eskura jarriko da.
- **GARBIKETARAKO MATERIALA:** eskuak igurzteko gel-a, aulki desinfektatzailea eta papera utziko dizkie Udalak.
- **SOINU EKIPO HANDIA:** Udalaren soinu ekipo handia eskatu da. Antolatzaileak atera, muntatu, erabili, desmuntatu eta jasoko du. Udal arduradunak adieraziko die nondik atera eta nora jaso.
- **OHOLTZA:** Udalak alokatuta duen oholtza erabiliko dute.
Frontoian izatekotan: urriaren 16 goizean montaketa lanean lagunduko diote antolakuntzako 3-4 kidek udal brigadari eta ez dute desmontatu beharko, igandean dantza emanaldia dagoelako.
Belar zelaian izatekotan: frontoitik hartu eta montatu beharko lukete behar duten azalera eta ondoren larunbat goizean frontoira eraman bueltan.

Udalak Resti pilotalekuko instalazioetara gerturatuko ditu baliabide guztiak eta udal arduradunak adieraziko die hauek non dauden eta non jaso behar diren.

- GARBIKETA:



- Antolatzailea arduratuko da ekitaldi-eremua eta sarrera-irteera eremuak garbi uzteaz.
- Lehen garbiketa bat kontzertua amaitzean egingo da eta hurrengo egunean eremua berrikusiko da, garbitu gabe geratutakoa garbitzeko.

- ANTOLAKUNTZA:

- Antolakuntzako kideek txaleko horia jantzita izango dute uneoro ikusleek erreferentzia argiak izan ditzaten.
- Kontzertuko musikarientzat Resti pilotalekuko aldagela (zelaiaren aldekoa) erabili ahal izango da. Erabilera ondorengo garbiketaz antolatzailea arduratuko litzateke erabili bada. Aparkalekutik eskolarako pibotea irekiko die udal arduradunak musikariek trasteak deskargatu eta amaieran kargatu ditzaten.

HIRUGARRENA. Zaldibiako Gazte Asanblada da bertan emango den erabileraren arduradun, beraz, ezinbestean egon behar dute kideek uneoro bertan eta espazioaren erabilerarako neurriak onartu eta errespetatuko dituen agiria sinatu beharko dute, baita hauek bete daitezela bermatu ere. Kontzertua espazio publikoan egiteko baimen hau, zuzenean loturik doa bertan zehazturiko baldintzei. Baldintza hauek bete ezean baimena indargabeturik geratuko da.

LAUGARRENA. Egoera epidemiologikoaren arabera, baimen hau aldatu edo bertan behera uztea erabaki dezake Zaldibiako Udalak.

BOSGARRENA. Baimenaren eskatzaileari hau jakinaraztea.

ALKATEA